

<http://www.ikas.eus/spip.php?article1655>



# Erosketak egiten (2) - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

---



### Erosketak egiten (2) Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz gerizatua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.  
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

**Ama:** Gaur aste guziko erosketak egin behar ditugu; erna gaitezen!

**Haurra:** Bikain! Kirol-zapatak erosiko dizkidazu!

**Ama:** Ez, gaur janaria baizik ez dugu erosiko!

**Haurra:** Badakizu, ama, askariko zituak aspalditik bururatuak ditugula.

**Ama:** Bai baina errana dizut ez ditugula gehiago erosiko azukre sobera dutelako.

**Haurra:** Eta zer janen dut beraz? Badakizu ez dudala besterik maite!

**Ama:** Bakea emazu! Fruituak, ogia eta ezta jan itzazu. Bitaminaz beterik dira.

**Haurra:** Berk! Ezta hastio dut! Pizza bat erosten dugu?

**Ama:** Ados. Ostiral arratseko atxikiko dugu. Entsalada on batekin afari hauta ukanen dugu.

**Haurra:** Eta Koka? Koka erosten bagenu?

**Ama:** Ez! Badakizu arras ontsa edari horren kontra gabela! Are, zoazi laster batez esneki zenbaiten eroatera. Maite dituzunak hauta itzazu baina prezioari kasu eginez.

**Haurra:** Bai, badakit. Ez merkeenak eta ez karioenak. Erosten ahalko ditut « Mars » batzuk?

**Ama:** Ez eta ez! Baina zer duzu egun? Azken aldia da erosketak elkarrekin egiten ditugula!

**Haurra:** Berdin zait! Zernahi gisaz beti hola da zurekin! Ez duzu sekula nik maite dudana erosten! Ez zara amatxi bezala! Hark goxokiak eta Koka-Kola erosten dizkit.

**Ama:** A, ez dudala maite duzuna erosten;? Hola baldin bada, pizza bere tokian pausa ezazu eta gero txokolatzeko jogurt goxo horiek ere hartu tokian ezar itzazu. Nik ditut hautatuko. Hau sarrazu buruan, koska tzarra, zu: oro nahiz, oro gal!

Jokalaririk: Ama eta haurra

Autorea: Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea: Ikas

Argitaratze data: 2010/12/21

Maila: 3. ziklotik goiti